

a r a b a k o



ARABAKO
MUSEOAK

araba  álava
foru aldundia diputación foral

EU

araba.eus

araba.eus



ARABAKO
MUSEOAK

araba  álava
foru aldundia diputación foral

AK



PDF ONLINE

Arabako Foru Aldundiak museo



Arabako Foru Aldundiak museo eskaintza zabala du, era askotakoa, eta bisitaria gonbidatzen du denboran zehar bidaia berezi bat egitera zientzien, historiaren eta artearen bitartez, aurkitzera bai duela milioika urteko




bizitzaren aztarnak bai gaurko kul-
tura garaikidearen joera berrienak.
Orobat eskaintzen du hezkuntza
programa zabal bat eta ikusle guz-
tientzako jarduera sorta zabal bat.





AURKIBIDEA





MUSEOAK GASTEIZEN

6

MUSEOAK ARABAN

16

BESTELAKO ONDARE-
BALIABIDAK

20





MUSEO AK GASTEIZ EN



ARABAKO ARTE EDERREN MUSCOA

1

Frai Francisco ibilbidea, 8
Tel. 945 181 918
arteederrenmuseoa.eus

ARABAKO ARMA MUSCOA

2

Frai Francisco ibilbidea, 3
Tel. 945 181 925
armamuseoa.eus

BIBAT - ARKEOLOGIA MUSCOA

3

Aitzogile, 54
Tel. 945 203 707
arkeologiamuseoabibat.eus

BIBAT - FOURNIER KARTA MUSCOA

4

Aitzogile, 54
Tel. 945 203 707
fourniermuseoabibat.eus

NATURA ZIENTZIEN MUSCOA

5

Jesusen Zerbitzarien Fun-
datzailean kalea, 24
Tel. 945 181 924
naturazientzienmuseoa.eus

ARTIUM MUSCOA

6

Frantzia kalea, 24
Tel. 945 209 020
artium.eus

ELIZBARRUTIKO ARTE SAKRATUAREN MUSCOA


7

Maria Sortzez Garbiaren kate-
drala. Cadena y Eleta monsino-
rea kalea z/g
Tel. 945 150 631
museosacrovitoria.eus

FAROLEN MUSCOA

8

Zapatari, 33-35
Tel. 945 277 077
cofradiavirgenblanca.com





ARABAKO ARTE EDERREN MUSEOA

Augustin Zulueta jauregian dago. 1912an eraiki zuten egoitza partikular gisa, eta 1942an sortu zenetik eraldaketa ugari izan ditu. Gaur egun, XVIII. eta XIX. mendeetako espainiar arteari eskainitako museoa da, eta modu espezializatuagoan, 1850-1950 aldiko euskal arteari. Estatuan, Vicente López, Federico de Madrazo edo Carlos de Haes izenak nabarmentzen dira, eta euskal artearen bildumak, berriz, Darío de Regoyos, Aurelio Arteta edo Ignacio Zuloaga egileen lanak ditu. Arreta berezia dute tokiko bi pintore nabarmenenek, zeinak baitira Ignacio Díaz Olano eta Fernando de Amárica.

Fray Francisco ibilbidea, 8
01007 Vitoria-Gasteiz
Tel. 945 181 918
museobellasartes@araba.eus
arteederrenmuseoa.eus






ARABAKO ARMA MUSEOA

Arabako Arma Museoak armen historiaren eta bilakaeraren ibilbidea egiten du historiaurretik XX. mendearen hasierara arte. Hango piezak defentsarako, ehizarako edo erakusketarako erabili izan dira, garai bakoi-tzeko aurrerapen teknologikoak islatzen dituzte, eta asko balio artistikoa-gatik nabarmentzen dira. Europako armak nagusi diren arren, bilduman pieza afrikarrak eta ekialdekoak daude, baita uniformeak, dominak edo txanponak ere. Bereziki nabarmentzekoa da 1813ko Vitoria-Gasteizko Guduari eskainitako atal monografikoa, gertaera historikoari zuzenean lotutako objektuak eta materialak erakusten baititu.

Fray Francisco ibilbidea, 3
01007 Vitoria-Gasteiz
Tel. 945 181 925
museoarmeria@araba.eus
armamuseoa.eus





BIBAT - ARABAKO ARKEOLOGIA MUSEOA

Arabako Arkeologia Museoaren erakusketa iraunkorrak, 1.500 objektu arkeologiko baino gehiagotatik eta zenbait ikus-entzunezko baliabidetatik abiatuta, Historiaurretik Erdi Arora arteko Arabako historia kontatzen du. Museoak bilduma handiagoa da, probintzian egindako esku hartze arkeologikoetako materialen gordailu ofiziala baita. Gainera, museoaren instalazioetan egiten dira Arabako ondare arkeologikoa kudeatzeko eta babesteko lanak, Lurralde Historikoko Foru Aldundiaren eskumenekoak, bai eta haren balio kulturalak ikertzeko, zabaltzeko eta ezagutarazteko jarduerak ere.

Aiztogile kalea, 54
01001 Vitoria-Gasteiz
Tel. 945 203 707
museoarqueologia@araba.eus
arkeologiamuseoabibat.eus





BIBAT - ARABAKO FOURNIER KARTA MUSEOA

Arabako Fournier Karta Museoaren egoitza Bendaña jauregi errenazentistan dago. XV. mendetik gaur egunera arte egindako mundu osoko karta sortak daude erakusgai. Joko estandarrez gain, bildumak hainbat gairi buruzko karta ilustratuak ditu, hala nola: geografia, natura, literatura, musika, magia edo tarota.

Heraclio Fournier-ek Gasteizen sortutako enpresatik datozen makinak ere erakusgai daude, bai eta historian zehar kartak fabrikatzeko erabili diren beste objektu batzuk ere, hala nola xilografia eta offseta.

Gaur egun, Arabako Arkeologia Museoarekin batera, BIBAT museo multzoaren parte da.

Aiztogile kalea, 54
01001 Vitoria-Gasteiz
Tel. 945 203 707
museonaipes@araba.eus
fourniermuseumbibat.eus





ARABAKO NATURA ZIENTZIEN MUSEOA


1986an inauguratu zenetik, Arabako Natura Zientzien Museoa erreferente bihurtu da EAEn, fosilen, mineralen, ornogabeen eta herbarioen bildumen etengabeko hazkundeari esker.

Beheko solairuan, anbar bilduma bikaina nabarmentzen da, duela 40 eta 100 milioi urte bitartean bizi izan ziren organismoen bioinklusioak dituen. Lehenengo solairuak mineralen edertasuna eta konplexutasuna miresteko eta bizitza fosilean murgiltzeko aukera ematen digu: landareak, amoniteak, trilobiteak, itsas trikuak...

Bigarren solairuak animalien biodibertsitatea esploratzen du ugaztunen, hegaztien eta tximeleten beira arasa ikusgarrien, kakalardoen, armiarmen eta eskorpioien bidez.

Otxanda andrearen dorrea
Jesusen Zerbitzarien Fundatzailean kalea, 24
01001 Vitoria-Gasteiz
Tel. 945 181 924
mcna@araba.eus — naturazientzienmuseoa.eus






ARTIUM MUSEOA

Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoa lurraldeko museoaren sistema-
ren funtsezko ardatzetako bat da. Haren bilduma aparteko ondare funts
publikoa da, 3.000 obra baino gehiagoz osatua. Aldi berean, erakusketei,
programa publikoei eta heziketa programei esker, publikoak errazago
ulertzen dituzte arte garaikideko hizkuntzak.

Artium Museoa hirigune historikoaren ondoan dago, eta honelako lane-
kin egiten die ongietorria bisitariei: Esther Ferrerren *Zenbaki lehenak*
(2003-2023), Joan Miró eta Josep Llorensen *Cinéma-thèque de Parisen*
horma irudia (1972) eta Javier Pérezen *Zeru kristalizatuko zati bat* (2001).

Frantzia kalea, 24
01002 Vitoria-Gasteiz
Tel. 945 209 020
museo@artium.eus
www.artium.eus





ELIZBARRUTIKO ARTE SAKRATUAREN MUSEOA

Gure iraganarekin eta haren forma artistikoekin elkartzeko lekua da. Sortzez Garbiaren katedral berrian dago, eta 1999an sortu zen, Arabako erlijio ondarea babestu, kontserbatu, aztertu eta zabaltzeko. Bilduma Arabako Foru Aldundiaren, Gasteizko Gotzaindegiaren eta Elizbarrutiko elizen gordailu, dohaintza eta eskuratzeetatik dator.

Bere aretoetan, hauexek ikus ditzakegu, besteak beste: lehenengo kristauen aztarnak; tenplu erromanikoen piezak; zurez landutako irudi gotikoak; triptiko flamenkoak; erretaula errenazentistak; El Greco, Ribera, Carreño de Miranda edo Alonso Canoren mihiseak, eta zilargintza bilduma interesgarri bat.

Maria Sortzez Garbiaren katedrala
Cadena y Eleta monsinorea kalea z/g
01008 Vitoria-Gasteiz
Tel. 945 150 631
info@museosacrovitoria.eus — museosacrovitoria.eus





FAROLEN MUSEOA

Farolen Prozesioaren Museoa beiratearen artearen ondare aberatsa da. Andre Maria Zuriaren Kofradiak ondare hau babestu, zaindu, kontserbatu eta zabaltu egiten du, bere baliabide ekonomikoekin eta bere kofraddeen partaidetza eskuzabalarekin. Bisitan, Arrosarioaren zati bakoitza irudikatzen duten prozesio elementuen historia, ikonografia eta artea azaltzen dira, eta, hala, bisita, Andre Mariaren otoitz nagusiaren irakaskuntza kateketikoa izateaz gain, argi eta kolore sinfonia ere bada.

Zapatari, 33-35
01001 Vitoria-Gasteiz
Tel. 945 277 077
info@cofradiavirgenblanca.com
cofradiavirgenblanca.com





MUSEO AK ARABAN



ARTZINIEGA MUSEOA

1

Artziniega - Araba
artziniegamuseoa.eus

PEÑACERRADA-URIZA- HARRERKO ETNOGRA- FIA MUSEOA

2

Peñacerrada-Urizaharra - Araba
penacerrada-urizaharra.eus

OIONGO ETNOGRAFIA MUSEOA

3

Oion - Araba
ayuntamientodeoyon.eus

SANTXOTENA TAILER MUSEOA

4

Artziniega - Araba
santxotena.org

FELIX MURGA AMURRIOKO ETNO- GRAFIA MUSEOA

5

Amurrio - Araba
aztarna.es

ZALDUONDOKO LAZARRAGA KULTUR- GUNEA-MUSEOA

6

Zalduondo - Araba
web.araba.eus/es/cultura

EUSKAL BUZTINGINTZA MUSEOA

7

Elosu, Legutiano - Araba
euskalzeramika.com





ARTZINIEGA MUSEOA

Arteko Aldapa, 12
01474 Artziniega - Araba
Tel. 945 396 210
artziniegakomuseoa@gmail.com
artziniegamuseoa.eus



PEÑACERRADA-URIZAHARREKO AIRE ZABALEKO MUSEO ETNOGRAFIKOAK

San Juan kalea, 2
01212 Peñacerrada-Urizaharra - Araba
Tel. 945 367 004
apenacerrada@ayto.araba.eus
penacerrada-urizaharra.eus



OIONGO ETNOGRAFIA MUSEOA

Foru kalea 6, beheko solairua (sarre-
ra Foru Plazatik) 01320 Oion - Araba
Tel. 945 622 190
info@ayuntamientodeoyon.com
ayuntamientodeoyon.eus



SANTXOTENA TAILER MUSEOA

Barrataguren auzoa, 2 A
01474 Artziniega - Araba
Tel. 605 717 857
tlafragua@santxotena.org
santxotena.org



MUSEOAK ARABAN



FELIX MURGA AMURRIKO ETNOGRAFIA MUSEOA

El Refor, 3
01470 Amurrio - Araba
Tel. 661 283 342
aztarnamurrio@yahoo.es
aztarna.es



ZALDUONDOKO LAZARRAGA KULTURGUNEA-MUSEOA

Iturribarri Auzoa 9
01208 Zalduondo - Araba
Tel. 945 304 393
olgadd@telefonica.net
web.araba.eus/es/cultura



EUSKAL BUZTINGINTZA MUSEOA

Ollerietta auzoa
Elosu, Legutiano - Araba
Tel. 945 455 145
blankaollerias@gmail.com
www.euskalzeramika.com





BESTELA ONDARE- BALIABI- DEAK



ONDARE ARKEOLOGIKOA

IRUÑA- VELEIAKO HIRI ERROMATARRA

Trespúentes-Billoda
01191 Iruña-Oka - Araba
Tel. 618 539 353
museoiruna-veleia@araba.eus

LA HOYA, BURDIN AROKO HERRIXKA

Elvillar errepidea, z/g
01300 Laguardia - Araba
Tel. 945 621 122
museolahoya@araba.eus

MONUMENTU MULTZOAK

KEXAAKO MONUMENTU MULTZOA

Kexaa
01477 Aiara - Araba
kexaa@araba.eus

VARONATARREN DORRE-JAUREGIA

Villanañe
01426 Gaubea - Araba
Tel. 945 353 035
varona@araba.eus



IRUÑA-VELEIAKO HIRI ERROMATARRA



Trespuentes-Billoda
01191 Iruña-Oka - Araba
Tel. 618 539 353
museoiruna-veleia@araba.eus
web.araba.eus/es/cultura



Iruña-Veleia, zeina hasieran karistiarren kokalekua baitzen, *Ab Asturica Burdigalam* (Astorga Bordele) bidetik egituratutako gune estrategiko bihurtu zen. Goi inperioaren garaitik nabarmentzen da (*domusa* eta *macelluma*), bai eta inperio berantiarraren fasetik ere, harresiekin eta presentzia militarrekin gotortu zenean. Gaur egun ere induskatzen jarraitzen dute, bere iragana erakutsiz.

LA HOYA, BURDIN AROKO HERRIXKA



Elvillar errepeidea, z/g
01300 Laguardia - Araba
Tel. 945 621 122
museolahoya@araba.eus
web.araba.eus/es/cultura



La Hoyako herrixkak (K.a. 1200 - K.a. 250) eraso bat jasan zuen, eta orduko bizitzaren irudi ukigabea gorde du. Aztarnategian barrena ibiltzeaz gain, aukera dago interpretazio zentroan bertako jendearen historia ezagutzeko aurkitutako objektuen eta etxebizitzetako baten erreprodukzioaren bidez.

KEXAAKO MONUMENTU MULTZOA



01477 Kexaa, Aiara - Araba
kexaa@araba.eus
web.araba.eus/es/cultura



Kexaako Monumentu Multzoa, zeina baita Aiarako Jaurreriaren erdigunea, XIV. mendetik aurrera eraikitako hainbat eraikinek osatzen dute. Aiaratarren hileta kapera nabarmentzen da, Aiara Kantzileraren, haren emaztearen eta gurasoen alboko lau hilobi biltzen dituen.

VARONATARREN DORRE-JAUREGIA



Villanañe
01426 Gaubea - Araba
Tel. 945 353 035
varona@araba.eus
web.araba.eus/es/cultura



Dorre honen jatorria XIV. eta XV. mendeetan dago, eta XII. mendean María Ruiz Pérez andrearekin jaio zen Varona abizenarekin lotzen da. Barrualdean, izaera tradizionalari eusten dioten hainbat espazio daude. Paper pintatuak eta jatorrizko altzarien bilduma nabarmentzen dira.

arabako
MU
SEO
AK

araba.eus



PDF ONLINE



MUSEOAK



KULTURA